

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****IRURAIZ-GAUNAKO UDALA****Behin-behineko onespena ematea ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari**

Iruraiz-Gaunako Udalak, 2020ko azaroaren 6ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onespena ematea ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari.

Aldaketa horrek ordenantzaren eranskinari eragiten dio; onetsitako testua hau da:

ERANSKINA

TARIFA	% KARGA TASA
Hiri ondasunak	0,19
Landa ondasunak	0,30
Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak	0,70

Eta hori jendaurrean jartzen da, interesa dutenek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Erreklamazioak idatziz egingo dira, eta horretarako hogeita hamar egun baliodun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan erreklamaziorik edo oharrik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betiko onetsizat joko da.

Azilu, 2020ko azaroaren 9a

Alkatea

SUSANA DÍAZ DE ARCAÑA CUBILLO